

Art.	Punto	Tipo	Cantidad (€)	
109	3f	L	500,00	Animales peligrosos. Proporcionar información equivocada relativa a datos solicitados por agentes de la autoridad.
110	3f	L	500,00	Animales peligrosos. Proporcionar documentación falsa ante la solicitud de agentes de la autoridad.
111	4a	A	200,00	No estar en posesión de la licencia municipal para tenencia de animales peligrosos por parte de quien lo tiene ó lleva.
112	3g	A	500,00	Tenencia de perros peligrosos con correa ó cinta más larga que dos (2) metros.
113	4a	A	200,00	Quien controla o lleva un animal peligroso no porta el certificado del registro de identificación.
114	4b	A	200,00	Manejar más de un perro potencialmente peligroso.
115	36	a	200,00	Abandonar las defecaciones de los animales en la calle ó lugares de tránsito de la gente.
116	42	b	200,00	Obstaculizar el funcionamiento de los servicios de control de la fauna en la villa.
117		c	200,00	Alimentar animales en la calle y solares.
118		d	200,00	No aportar información o documentación relativa a la tenencia de animales.

(II-5331)

**Bizikidetza udal araua behin betiko onartzea**

Bermeoko Udalak 2015eko martxoaren 4ean izandako Osoko Bilkuran Bizikidetza Udal Araua hasieraz onartu eban; 2015eko maiatzaren 7an Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta jagokon epea igarota, alegaziorik aurkeztu ez danez, behin betiko onartuta gelditzen da, ondoren adierazoten dan moduan:

**BIZIKIDETZA UDAL ARAUA****I. TITULUA****XEDAPEN OROKORRAK****I. KAPITULUA****HELBURUA, LEGE OINARRIAK ETA APLIKAZINO EREMU****Zioen azalpena**

Bizikidetzaren udal araudiaren helburua da espazio publikoa bizikidetasun eta elkarbizitzarako espazio bezala zaintzea. Bertan pertsona guztiek askatasunez garatu ahal izango dituzte aske-zirkulazioko jarduerak (aisialdikoak, topaketakoak...), beti ere errespetatuz gainerakoen duintasuna, eskubideak, adierazpen aniztasuna eta bizitzeko era ezberdinak.

Egun arautu gabe eta herritar guztion arteko elkarbizitza bermatzeko hainbat jarrera arautzen dira Bizikidetzaren udal araudian. Aztertu diren beste gai asko, ez dira araudi honetan barneratu, beste araudi batzuetan jasota daudelako eta, beraz, araututa daudelako.

Horrela, bizikidetasunean eragina izan dezaketen egoerei aurre egiteko tresna eraginkorra izan nahi du Araudi honek. Egoera berriei erantzun demokratiko eta orekatua eman nahi da Araudi honen bitartez. Horretarako oinarritzkoa da espazio publikoetan aske jokatzeko guztiok dugun eskubidea onartzea. Aldi berean, askatasunarekiko, duintasunarekiko eta gainerakoei onartutako eskubideekiko bizikidetasun eta errespetuaren betebehaz zehatzak guztiok onartu behar ditugu. Halaber espazio publikoa baldintza egokietan mantendu behar da.

Bermeo kale, eraikin, parke eta enparantzekin osatuta dago. Horiek antolatuta daude herritarrek erabili ahal izateko. Izan be, herritarrek dira herria sostengatzen eta forma ematen diotenak, bai aipatutako elementuak erabiltzen dituztenean eta bai elkarbizitzarako harremanen garapenean.

Hortaz, Bermeo hobetzen da, alde batetik, bere elementu fisikoak hobetuz, baina, beste alde batetik, gizalegezko portaerazko jarraibideak hobetuz. Horrela, herritarren elkarbizitza hobetuko da eta, azken finean, Bermeo hobeto bat eraikiko da bertan bizi garentzat eta bisitatzen gaituztenentzat.

Gizalegezko portaerazko jarraibideak pertsona guztien askatasuna bermatu behar dute, muga besteenganako errespetua izanik. Herritarrek herriko espazio publikoak erabiltzeko eskubidea dute

**Aprobación definitiva de la Ordenanza municipal de Convivencia**

El Ayuntamiento de Bermeo en sesión plenaria celebrada el 4 de marzo de 2015 aprobó inicialmente la ordenanza municipal de convivencia. Publicada en el «Boletín Oficial de Bizkaia» de 7 de mayo de 2015, una vez transcurridos los plazos correspondientes y dado que no se ha presentado alegación alguna, queda aprobada con carácter definitivo, tal y como se presenta a continuación:

**ORDENANZA MUNICIPAL DE CONVIVENCIA****TÍTULO I****DISPOSICIONES GENERALES****CAPÍTULO I****OBJETO, FUNDAMENTOS LEGALES Y ÁMBITO DE APLICACIÓN****Explicación de motivos**

El objeto de la ordenanza municipal de convivencia es preservar el espacio público como lugar de encuentro y convivencia. En el mismo, todas las personas podrán desarrollar actividades relacionadas con la libre circulación (de ocio, encuentros, etc.) preservando en todo momento la dignidad, derechos, pluralidad de expresión y modos de vida de las demás personas.

Con el objetivo de garantizar la convivencia entre todos y todas las ciudadanas, La ordenanza municipal de convivencia regula algunas actitudes que actualmente no se hayan reguladas. En esta ordenanza no han sido incluidas muchas otras materias que han sido motivo de análisis, pero que se han considerado ya reguladas por otras ordenanzas.

De este modo, esta ordenanza pretende ser una herramienta permanente para hacer frente a situaciones que puedan tener incidencia en la convivencia. Por medio de esta ordenanza se pretende dar una respuesta democrática y equilibrada a nuevas situaciones y para ello es imprescindible reconocer el derecho de todas las personas a comportarse libremente en los espacios públicos. Al mismo tiempo, debemos de asumir una serie de obligaciones de convivencia y respeto hacia los derechos reconocidos a las demás personas, hacia sus libertades y dignidad. Asimismo; el espacio público se debe de conservar en condiciones adecuadas.

Bermeo se estructura en calles, edificios, parques y plazas, de una manera organizada para que las personas puedan disfrutarlas. Asimismo son las personas quienes las mantienen y les confieren sentido en la medida que utilizan los citados elementos en el desarrollo de las relaciones de convivencia.

En ese sentido, Bermeo mejora, por un lado, en la medida que mejoran sus elementos físicos, pero también por otro lado, mejorando las pautas y modelos de comportamiento. De este modo, se mejora la convivencia entre las personas, y en definitiva construiremos un Bermeo mejor, tanto para quienes vivimos aquí, como para quien viene a visitarnos.

Las normas de comportamiento deben de garantizar la libertad de todas las personas, siendo su límite el respeto hacia las demás personas. Las personas tienen derecho a utilizar los espacios públi-

eta bere askatasunean errespetatuak izan behar dira. Eskubide hori gizatasunarekin erabili behar da eta bere mugak honakoak dira: ondasun publikoen erabileraren xedapenak eta pertsona eta ondasunak errespetatzeko betebeharra.

Inork ezin du bere jarrerarekin gainerako pertsonen eskubideak kaltetu edo mesprezatu, ezta ere baloreak erostu eta elkarbizitzako arauak mindu. Gizalegezkoak ez diren portaerak, nahiz eta gutxienekoak izan, guztionak diren ondareak eta espazioak kalteaz gain, elkarbizitzaren kontrako eraso bat dira. Horrez gain, bere eskubideak eta betebeharrak gizalegez bere gain hartzen duten herriarrenganako errespetu falta bat dira.

Bestalde, gizalegezkoak ez diren portaeren ondorioz, diru publiko kantitate handiak bideratu behar dira, ondareen garbitasun, mantentze, konpontze eta berritze lanetara, diru hori beste gauza baterako erabili ahal denean. Horregatik, gure herriko ondare eta espazio publikoak errespetatzeak diru publikoaren kudeaketa hobetzen du. Horrela, baliabide gehiago arrazionaltasunarekin erabili daitezke lehentasunetara bideratuz.

Duda barik, fenomeno horien sustraiak konplexuak dira eta udal arlotik at daude, izan be, arazo sozial, familiar eta hezkuntzarekin zerikusia dute, eta udal erakundeek legalki ezin dute bakarrik aurre egin, nahiz eta, paradoxikoki, horien ondorioak udal erakundeen eskuduntzen arloan ematen diren.

Horregatik, historikoki Udalen eskuduntzak gizalegezkoak ez diren jarreretatik eratorritako efektu horiek zuzentzera bideratu izan dira. Bermeoko Udalak materia hau arautu du, baina ezin izan du bere osotasunean egin, arlo batzuetan lege-gaikuntza falta dela eta.

Bizikidetzaren udal araudi honek gizalegezko portaerak arautzera bideratuta dago eta lehengo araudietan jasotzen ez diren materia berriak hartzen ditu. Hain zuzen ere, araudi berri honek gizalegezko portaerak arautuko dituen, beharrezkoa da funtsezkoak diren hiru oinarri elkartzea: prebentzioa, gizalegezkoak ez diren portaeren zigorra eta horrek egiten dituzten errehabilitazioa. Elementu guzti horien jokoak elkarbizitzaren kontrako portaerak ongi gobernatzea bilatzen du.

Bizikidetzaren udal araudiaren helburua da gizalegezko portaerak eta balioak bultzatzea, hain zuzen ere, elkarbizitza aztoratzen duten ekintzak saihesteko bitarteko bezala. Zalantzarik gabe, gizalegezko kontzientzia positiboa bultzatzea erabili beharreko lehenengo bitartekoa izan behar da gizartearen kontrako ekintzak ekiditzeko.

Horrez gain, testu honen helburua da ondare eta espazio publikoak babestea eta, herritarren arteko elkarbizitza bermatzeko helburuarekin, gizalegezkoak ez diren portaeren gaitzespena arautzen da.

## 1. artikulua.— Ordenantzearen helburua

1. Herriko espazio publikoak bizikidetzarako eta gizalegezko portaerak izateko gune modura babestea da Ordenantza honen helburua. Persona guztiak askatasunean garatu ahal izango dabez espazio publiko honeetan euren jarduerak: askatasunez ibili, alkartu, egon, astialdiaz gozatu, eta guzti hori, ganerako persona guzti duintasunari eta eskubideei errespetu osoa gordez. Bermeo gune kolektibo bat da eta persona guztiak daukie euren baldintzak aurkitzeko eskubidea, persona modura garatzekoa, bai politikoki zein sozialki, inguruko baldintzarik egokienetan. Horrek esan gura dau baita, alkartasunez, alkarri zor deusagun errespetuaz eta tolerantziak jokatu behar dogula.

2. Espazio publikoan bizikidetzeta eta gizalegezko portaerea sustatzera bideratutako neurri batzuk arautzen dauz Ordenantza honek. Zigortu egiten dauz bai herritarren arteko bizikidetzeta nahastau, nahiz espazio publikoan dagozan ondasunak apurtzen edo narriatzen saiatzen diranak. Honelako kasuetan esku-hartze berriazko neurriak aurreikusten dira.

cos y en su libertad han de ser respetadas. Este derecho es propio de la naturaleza humana y sus límites son los siguientes: Las disposiciones para el uso del dominio público y el obligado respeto hacia las personas y bienes.

Nadie puede con su comportamiento dañar ó despreciar los derechos de las demás personas, ni vulnerar valores ni transgredir las normas de convivencia, Los comportamientos irrespetuosos, aunque sean mínimos, además de dañar los bienes y espacios de todas las personas, son un ataque a la convivencia. Asimismo; son una falta de respeto hacia todas las personas que asumen con corrección el ejercicio de sus derechos y obligaciones.

Por otro lado; como consecuencia de todos esos comportamientos inadecuados es necesario destinar grandes cantidades de dinero público al mantenimiento, limpieza, arreglo, reconstrucción y reposición de bienes, impidiendo su utilización en otras necesidades. En ese sentido, respetar los bienes y espacios públicos de nuestro pueblo contribuye a una mejor gestión del dinero público, al poder utilizar con mayor racionalidad, más recursos con destino a necesidades más prioritarias.

Sin duda la naturaleza de todos estos fenómenos es muy compleja y se origina al margen del ayuntamiento. Sus raíces tienen mucho que ver con la educación y los problemas familiares y sociales, y los organismos municipales no pueden, por sí solos, hacerles frente, aunque paradójicamente, sufran en su propia competencia y capacidad municipal sus consecuencias.

Por todo ello, históricamente, los recursos municipales han sido destinados a corregir los efectos provocados por todos esos comportamientos incívicos. El Ayuntamiento de Bermeo ha regulado esta materia, pero los vacíos legales relativos a diversos aspectos del tema han impedido que la regulación pueda abordarse de una manera íntegra.

Esta ordenanza de convivencia pretende regular el comportamiento cívico y recoge nuevos aspectos que no se hallaban regulados en anteriores normativas. En concreto, en la medida que esta nueva normativa pretende regular los comportamientos cívicos se hace necesario e imprescindible abordar de manera conjunta tres cuestiones fundamentales: La prevención, La sanción de los comportamientos incívicos, y la rehabilitación de los elementos ó efectos. La conjunción de todos estos aspectos busca gestionar de manera adecuada los comportamientos contrarios a la convivencia.

El objetivo de la ordenanza municipal de convivencia es, concretamente, promover el comportamiento cívico y sus valores, como una herramienta para eludir comportamientos que perturban la convivencia. Sin ningún género de duda; promover la conciencia cívica con carácter positivo es la herramienta prioritaria para evitar las acciones contra la sociedad.

Además, el objeto de este texto es proteger los bienes y espacios públicos. Asimismo, con el objetivo de garantizar la convivencia entre la ciudadanía se regula el rechazo a comportamientos inadecuados e incívicos.

## Artículo 1.— Objeto de la ordenanza

1. El Objeto de esta ordenanza es proteger los espacios públicos como lugar de encuentro, convivencia y comportamiento cívico. En todos esos espacios públicos, todas las personas podrán desarrollar sus actividades en completa libertad, libertad de movimiento, de reunión, de estancia, de disfrute del tiempo libre etc. y todo ello preservando en todo momento la dignidad y el respeto hacia las otras personas. Bermeo es un espacio colectivo y todas las personas tienen derecho a encontrar en él las condiciones más adecuadas para desarrollarse como personas a nivel político y social. Todo ello conlleva también, que por solidaridad, debemos de comportarnos con respeto y tolerancia recíproca entre todas las personas.

2. Esta ordenanza regula una serie de medidas dirigidas a promover la convivencia y el comportamiento cívico en los lugares públicos. Al mismo tiempo, sanciona los comportamientos que alteran la convivencia entre las personas y aquellos que destruyen ó deterioran los bienes situados en los espacios públicos, para cuyos casos se prevén diferentes medidas específicas.

3. Izakera orokorreko erabilera komunek lehentasuna izango dabe beste erabilera batzuen ganetik, nahiz eta azken honeek be harmonizatu eta posible egiteko ahaleginak egingo diran, ezinbestekoak gertatzen direnean interes pribaduak mantentzeko eta kalte handirik eragiten ez badeutse interes publikoari.

## 2. artikulua.— *Lege oinarriak*

1. 7/1985 Legea, apirilaren 3koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dauzenaren 139 eta hurrengo artikuluetan ahalmena emoten jake udalerriei arau-hausteak eta zehapenak tipifiketako, bizi-kidetzeta hartu-emonak antolatze aldera.

2. Aurreko atalean ezarritakoa ulertu behar da, Bermeoko Udalari toki-araubidearen araudi orokorrak eta sektoreko legedi aplikagarriak emondako beste eskumen eta funtzioen kalte barik.

## 3. artikulua.— *Aplikazino eremu objektiboa*

1. Ordenantza hau Bermeoko udalerrri guztian aplikauko da.

2. Batez be, Ordenantza hau aplikagarria izango da herriaren espazio publiko guztietan: kaleak, bideak, espaloiak, plazak, etorbideak, pasealekuak, pasabideak, bulebarrak, parkeak, lorategiak eta ganerako gunek berdeak edo basokoak, zubiak, tunelak eta lurpeko pasabideak, aparkalekuak, iturriak eta urtegiak, eraikin publikoak eta udalaren jaubetzako zerbitzu edo erabilera publikoko espazio guztiak, eraikuntzak, instalazioak, uri-altzariak eta beste ondasun guztiak eta eurretan kokatutako udal jabari publikoko elementuak.

3. Aldi berean, Ordenantza hau aplikagarria izango da udalarenetarik kanpoko beste administrazio edo erakunde nahiz enpresa publiko edo pribaduren jaubetzako zerbitzu publiko zein pribaduko eraikin, instalazio, ibilgailu edo elementuetan, esate baterako, garraiorako ibilgailuak, markesina edo aterpeak, autobus, tren edo autokarren geltokiak, hesiak, trafiko seinaleak, kontainerrak, eta beste honeelakoak. Kasuan kasuko, udalak hitzarmen bereziak egitea bultzatuko dau espazio, eraikuntza, instalazio, ibilgailu edo elementu horreen jaubeakaz, udalaren esku-hartzeak beharrezkoa dauen estaldura juridikoa izan daian.

4. Era berean, Ordenantza hau Bermeoko itsasaldeari be aplikauko jake eta portu aldeari udalaren eskumenekoak diran eremu eta gaitetan, legedi aplikagarria kontuan izanda, edota hitzarmen edo ordezkotasun erabagi kasuetan.

5. Titulartasun pribaduko espazio, eraikuntza, instalazio eta ondasunetan be aplikauko da Ordenantza hau, aurreko ataletan azaldutako espazio, instalazio edo elementuetan bizikidetzeari eta gizalegari txarrerako eragin leikioen portaerak edo jarduerak garatzen direnean eurtan, baita kontu ezak edo jaubeen edo errentadoreen aldetik mantentze desegokiak txarrerako eraginak sortu leikiezanean espazio publikoan bizikidetzeari edo gizalegari begirata.

## 4. artikulua.— *Aplikazino eremu subjektiboa*

1. Bermeoko udalerrian dagozan persona guztiei aplikauko jake Ordenantzea, bardin izanda zelako egoera juridiko-administratibo zehatzean dagozan.

2. Adin txikikoen jarreretan be aplikagarria izango da Ordenantzea, honen artikuluetan zein beste araudi juridikoetan ezarri eta aurreikusten diran xedapen eta ondorioakaz. Espresuki holan aurreikusten diran kasuetan, gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek be hartu ahal izango dira adin txikikoek egindako arau-hausteen erantzule modura. Hareen aldetik iruzurra, errua edo ardurabakotasuna egon dala egiaztetan danean, adin txikikoarenganako kontu ez hutsa be, barruan dala.

3. Era berean, Ordenantzaren holan espresuki aurreikusten diran kasuetan, 9. artikuluan xedatzen diran ikuskizun publikoaren antolatzaileentzako be aplikagarria izango da.

3. Los usos comunes de carácter general tienen prioridad sobre cualquier otro uso, aunque, cuando sea estrictamente necesario para mantener los intereses privados y sin que estos provoquen daños graves al interés general, se realizarán esfuerzos para compaginarlos y armonizarlos de manera que todos sean posibles.

## Artículo 2.— *Fundamentos legales*

1. La ley 7/1985 de 3 de abril, Reguladora de Bases de Régimen Local que en su artículo 139 y siguientes otorga a los ayuntamientos la capacidad para tipificar las infracciones y sanciones en el ámbito de la regulación de las relaciones de convivencia.

2. Lo definido en el párrafo anterior ha de ser entendido sin perjuicio de todas aquellas otras competencias y funciones legales que, en aplicación de normativa local general y la normativa sectorial aplicable en cada caso, le corresponden al ayuntamiento de Bermeo.

## Artículo 3.— *Ámbito de aplicación objetivo*

1. Esta ordenanza será de aplicación en todo el territorio del municipio de Bermeo.

2. En especial, esta ordenanza es de aplicación en todos los espacios públicos del municipio: Calles, caminos, aceras, plazas, avenidas, paseos, pasarelas, bulevares, parques, jardines y otras zonas verdes, bosques, túneles, puentes, pasos subterráneos, aparcamientos, fuentes, pantanos, edificios públicos, todos los espacios destinados a uso público y de propiedad municipal, edificios, instalaciones, mobiliario urbano y cualquier otro bien y/o elemento situado en dominio público.

3. Asimismo, será de aplicación esta ordenanza en todos aquellos edificios, instalaciones, transporte o elementos adscritos a cualquier otra empresa pública ó privada, ajena al ayuntamiento, que presten servicio público ó privado, como por ejemplo los vehículos de transporte, marquesinas y refugios, las estaciones de tren ó autobús, las vallas, las señales de tráfico, los containeres, y elementos del estilo. En cada caso, y para que la intervención del ayuntamiento tenga la debida cobertura jurídica, el ayuntamiento promoverá el establecimiento de convenios con cada uno de los propietarios de los citados espacios, edificios, instalaciones y elementos.

4. Del mismo modo, esta ordenanza será de aplicación en la zona marítima y en la zona portuaria de Bermeo en todos aquellos aspectos y espacios en los que, a tenor de legislación aplicable, tiene competencia e propio ayuntamiento, ó en los casos en que se establezca por medio de convenio ó subsidiariamente.

5. Esta ordenanza también será de aplicación en espacios, edificios, instalaciones y bienes de propiedad privada cuando en ellos se puedan realizar actos ó desarrollar actitudes que pudieran dañar la convivencia, ó incluso, desde el punto de vista de convivencia y comportamiento de respeto mutuo, cuando la falta de cuidado ó mantenimiento inadecuado por parte de propietarios y/o arrendatarios pueda tener incidencia en los espacios públicos.

## Artículo 4.— *Ámbito de aplicación subjetivo*

1. Esta ordenanza será de aplicación a todas las personas que se encuentren en Bermeo, sea cual sea, la condición jurídico-administrativa concreta en la que se encuentre.

2. Los artículos de esta ordenanza, así como las disposiciones de otra normativa jurídica, también son aplicación, en su conjunto y a todos los efectos; a los comportamientos mantenidos por menores de edad. En especial en los casos en los que establece específicamente, serán los padres y madres, personas tutoras y responsables legales quienes se harán responsables de las infracciones cometidas por menores de edad. Cuando además, se confirme que ha existido fraude, dejadez, falta ó irresponsabilidad por su parte se contempla no solo la infracción de la persona menor de edad.

3. Asimismo, para los casos previstos específicamente en esta ordenanza, será de aplicación a las personas organizadoras de los espectáculos públicos detallados en el artículo 9.

## II. KAPITULUA

**HERRITARREN ARTEKO BIZIKIDETZA ETA GIZALEGEAREN  
PRINTZPIO OROKORRAK****5. artikulua. — Bizikidetza eta gizalegeko betebeharrak**

1. Udal Ordenantza honetatik zein beste edozeinetatik edo ganerako araubide juridiko aplikagarritik eratorritako betebeharren kalte barik, herrian dagozan persona guztiek, bardin da zein titulu edo egoeretan dagozan nahiz zein egoera juridiko administratibotan egon, Ordenantza honetan aurreikusten diran portaera arauak bete beharko dabez, espazio publikoan gorde behar dan bizikidetzearren oinarritzko bide lez.

2. Inork ezin izango dau, bere portaereagaz gitxietsi edo kalteu beste persona guztien eskubideak ezta eraso euren duintasunari ezta ekiteko askatasunari. Inork ezin izango dau euki portaera gehiegizkorik, bidebakorik, baztertzailek, indarkeria fisikoa erakusten dauenik, ez bortxatze moralik ez psikologikorik ezta beste edozein moztatarokik.

3. Herritarren arteko bizikidetzeari betebeharrak oinarritzea da. Errespetuz, arretaz, estimazioz eta alkartasun bereziaz hartu behar dogu alkar, eta batez be, bakotxaren egoera personal, sozial edo beste edozein moztatarokaitik beharizanik handiena daben personak.

4. Persona guztiek erabili beharko dabez herriko espazio publikoak, zerbitzuak, instalazioak, uri-altzariak eta eurretan dagozan elementu guztiak era egokian, euren ezaugarriak, helburuak eta zertarako eginak izan diran kontuan hartuta eta beste persona guztiak honek elementu danak erabilteko eta eurretaz gozatzeko eskubidea errespetatuta.

5. Titularitasun pribaduko higiezin, eraikin, eraikuntza, instalazio, ibilgailu eta beste ondasun guztien jaubeek behartuta dagoz, ondasun honeetatik eragin leikiezan portaera eta jarduerak beharrezkoa ez dan nekerik ez eragiten ganerako persona guztiengan.

6. Bermeon dagozan persona guztiek udal aginteari edo bere agentei lagundu behar deutsee herritarren arteko bizikidetzeari aztoratu, hausi edo kaltetzen daben portaerak errotik aldentzeko.

## III. KAPITULUA

**BIDE PUBLIKOAN EKITALDIAK ANTOLATU ETA BAIMENTZEA****6. artikulua**

1. Espazio publikoetan egiten diran ekitaldi eta jarduerak guztiak aurretiaz baimenduta egon beharko dira.

Bide publikoan egiteko diran ekitaldien antolatzaileek jagoken eskaria aurkeztu beharko dabe 21 egun lehenago, gitxienez, burutuko diran ekintzei buruzko informazioa erantsiz. Ekitaldia noiz hasiko dan eta noiz amaituko azalduz, non burutuko dan, izango dauen ibilbidea eta persona arduradunaren nortasuna eta beragaz zelak kontaktatu. Ekitaldi edo jarduerak horrek zarata gogaikarriak sortuko baleuz, Bermeoko Zaraten eta Dardaren aurkako Araudiak finkatutakoa bete beharko dabe, batez be 21. artikulutik 26. artikulura finkatutakoa (baimen bereziak, ordutegiak, baimendutako mailak, etab.).

2. Bide publikoan egiteko diran ekitaldietako antolatzaileek personak eta ondasunen segurtasuna bermatu beharko dabe. Horretarako, kasu bakotxerako jagokon organo eskudunak ezarritako segurtasuneko baldintza orokorrak eta autobabeserako baldintzak bete beharko dabez. Egoereak holan gomendatzen dauenean, udalak fidantza bat ipintea eskatu leikie antolatzaileei edota aseguru poliza bat sinatu daiela agindu, gertau leikezan kalteei aurre egiteko.

3. Udal aginteagaz alkarlanean aritzeko ekitaldi publikoen antolatzaileek zaindu beharko dabe erabilitako espazio publikoak ez zikintzea eta euren uri-elementu arkitektonikoak ez hondatzea. Derriortuta egongo dira ezelako kalterik gertau ezker, konpontzen, lehengotara ekarten eta garbiten.

## CAPÍTULO II

**PRINCIPIOS GENERALES DE LA CONVIVENCIA  
ENTRE PERSONAS Y DEL COMPORTAMIENTO CÍVICO****Artículo 5. — Condiciones generales de la convivencia y el comportamiento cívico**

1. Sin perjuicio de las obligaciones derivadas de esta misma ordenanza, así como de las derivadas por cualquier otra, o la normativa legal aplicables, todas las personas, sea cual sea el título ó la situación en que se encuentren, ó la situación jurídica administrativa en la que se hallen, deben de cumplir, como pauta básica de convivencia, las normas de comportamiento que se prevén en esta ordenanza.

2. Nadie puede, con su comportamiento menospreciar o dañar los derechos de las demás personas, ni lesionar su dignidad ni su derecho a ejercer su libertad. Nadie puede mantener ni mostrar un comportamiento excesivo, indebido, marginador, de maltrato, ni que demuestre cualquier tipo de violencia moral, psicológica ó de cualquier otro tipo.

3. La Convivencia entre todos y todas las ciudadanas es una necesidad fundamental. Se debe de tener un trato de mutuo respeto, estimación y solidaridad, sobre todo con todas aquellas personas que por su situación personal, social, ó de cualquier otro tipo se encuentren en una situación de mayor necesidad.

4. Todas las personas deberán de utilizar adecuadamente los espacios públicos, servicios, instalaciones, mobiliario urbano del municipio y todos los elementos que en ellos se encuentren teniendo en cuenta su utilidad y el destino al que sirven, y respetando en todo momento, el derecho que tienen las demás personas al goce y disfrute de esos mismos elementos.

5. Las personas propietarias de otros bienes de titularidad privada, como inmuebles, edificios, instalaciones, vehículos, etc., están obligadas a que de las actividades ó comportamientos que se desarrollen en ellos, no se derive ningún daño ó padecimiento hacia las demás personas.

6. Todas las personas que se encuentren en Bermeo deben de ayudar a la autoridad municipal y a sus agentes, a erradicar los comportamientos que dañan, infringen, ó alteran la convivencia entre las personas.

## CAPÍTULO III

**AUTORIZACIÓN DE ACTOS PÚBLICOS EN LA VÍA PÚBLICA****Artículo 6**

1. Todas las actividades y actos públicos que vayan a desarrollarse en la vía pública deben de ser autorizados con antelación.

Quienes vayan a organizar un acto en la vía pública deberán de presentar una solicitud, al menos, 21 días antes del acto, adjuntando a la misma información sobre el mismo acto, donde se citará la hora de inicio y final del acto, en que lugar se desarrollará, recorrido que tendrá, así como persona responsable del acto y forma de contacto. Si el acto pudiera originar ruidos molestos, deberá de cumplirse lo dispuesto en la Ordenanza contra el ruido y las vibraciones de Bermeo, y especialmente lo dispuesto entre los artículos 21 y 26 de la citada ordenanza (permisos especiales, horarios, niveles permitidos, etc.).

2. Quienes vayan a organizar un acto en los espacios públicos deberán de garantizar la seguridad de las personas y los bienes. Para ello deberán de cubrir las condiciones que en cada caso se fijen por el órgano correspondiente, en relación a las condiciones generales de seguridad y autoprotección. Cuando la situación lo requiera el ayuntamiento podrá exigir el depósito de una fianza, ó la contratación de una póliza de seguros para poder hacer frente a los posibles daños que pudieran originarse.

3. En coordinación con la autoridad municipal, quienes organicen un acto público deberán de velar por no ensuciar el espacio público ni ocasionar daños en los elementos urbanísticos del espacio. En caso de que se produjera algún daño estarán obligados a arreglarlos y limpiarlos devolviéndolos a su estado anterior.



4. Ekitaldietako antolatzaileek erabilitako espazioan ikuspegiaren degradazioa eragiten dabean portaerak ekidin beharko dabez. Honelako ekitaldietan haregaitik edo horregaitik artikulua honen lehen atalean azaldutako portaerak gertatzen badira, antolatzaileek beharrezkoak diran neurriak hartu beharko dabez.

Aurreko ataletan ezarritakoa bete ezean, huts-egite larria egin dala ulertuko da.

5. Bide publikoan baimendu bako ekintzak antolatzen badira, edo ezarritako baldintzak beteten ez badira bertan, ekintza horretako antolatzaileen erantzukizuna izango dira bai ekintza bertan behera iztetik eratorritako ondorioak zein hori dala eta tramitauko diran zigor espedienteak be.

6. Galazota geratuko da baimendu bako edozein moztetako jarduerarik burutzea espazio publikoan.

## 7. artikulua

Udalak ez dau baimenik emongo jai, musikazko, kultura, kirolazko edo beste edozein moztetako ekitaldirik egiteko, eurretara joango dan ikus-entzule kopurua, espazio publikoaren beraren ezaugarriak edo behar dan moduan egiaztatu edo arrazoitutako egoerakaitik arriskuan ipini badaitezke segurtasuna, bizikidetzeta edo gizalegea. Kasu honeetan, posible dan bakotxean, udalak antolatzaileei beste areto alternatibo batzuk eskainiko deutsez ekitaldia burutu ahal izateko.

## 8. artikulua

Konstituzinoaren 21. artikulua onartzen dauen batzeko eta manifestatzeko oinarrizko eskubidea burutzea eskatzen danean, garagarriaren 15eko 9/1983 Lege Organikoaren 9.2 artikulua ezarritakoari jarraituz, udalak beharrezkoa dan txosten arrazoitua emongo dau, eta bertan jasoko da, hala beharrezkoa balitz, ekitaldi edo ekintza hau bere antolatzaileek kokatutako espazio publikoan zergaitik ez litzatekeen egokia egitea. Txosten horren arabera, gobernuko agente eskudunak jagokon hartu beharreko erabagia hartuko leuke.

### II. TITULUA

#### ESPazio PUBLICOAN IZAN BEHARREKO PORTAERA ARAUAK

##### I. KAPITULUA

##### PERSONENAK

## 9. artikulua

1. Galazota geratzen dira, personen duintasuna gitxiesten dabean portaerak, baita jarrera lizun eta exhibizionistak, edozein portaera baztertzaila, bardin izaera xenofobokoa izan, zein arrazista, sexista edo homofobia edo beste edozein eratakkoa, ezaugarri personal edo sozialaren aurkakoa; egitez, idatziz zein ahoz; irainak jaurtiz, barre eginez, nahita gogait eginez, bortxa fisiko edo psikikoaz, eraso eginez, edo beste edozein jarrera iraingarri eta jazarpenak burutuz.

2. Bereziki galazota geratzen dira goian aitaturako jarrerak adin nagusiko personei zuzenduta dagozanean, adin txikikoei, edo ezintasunen bat daukien personei.

Artikulu honetan ezarritakoa ez betetea huts-egite oso larritzat hartuko da.

## 10. artikulua.—Beharrian fisiologikoak

1. Beharrian fisiologikoak (txiza, kaka egitea, etab.) Ordeantza honetan azaldutako guneetan eta bere aplikazinoaren eremu objektiboetan egitea galazota egongo da. Horretarako ipinita dagozan instalazino edo elementuak erabili behar dira beharrian horreek asetzeko.

2. Aurreko atalean azaldutako jarrera persona asko dabilen lekuetan, adin txikikoak dabilzanetan edo sailkatutako zein babesitutako monumentu edo eraikinetan burutzen diranean, huts-egite larritzat hartuko dira.

4. Quienes organicen el acto deberán de velar para que no se realice ni desarrolle ningún comportamiento que pudiera degradar la imagen del espacio. Si por un motivo u otro, en este tipo de actos se desarrollaran comportamientos como los citados en el primer apartado de este artículo, las personas organizadoras deberán tomar las medidas necesarias para evitarlos.

En caso de incumplimiento de lo dispuesto en los apartados anteriores se considerará que se ha cometido una falta grave.

5. Si se organizaran en la vía pública actos sin autorización, ó se incumplieran las condiciones, las personas organizadoras serán responsables de las consecuencias de la inmediata suspensión del acto, así como de las conclusiones que pudieran derivarse del expediente sancionador que se tramitara en su caso.

6. Queda totalmente prohibida la realización sin autorización de cualquier actividad en espacio público.

## Artículo 7

El ayuntamiento no autorizará ningún acto musical, cultural, deportivo ó de cualquier otro tipo, cuando el quórum de público que pudiera participar en el acto sobrepasara de manera manifiesta las posibilidades que ofrece el espacio público ó cuando de una manera razonada considerara que se puede poner en peligro la seguridad ó la convivencia. En estos casos, y siempre que sea posible, el ayuntamiento ofrecerá a las personas organizadoras espacios alternativos para poder desarrollar el acto.

## Artículo 8

En aplicación de lo dispuesto en el artículo 9.2 de la Ley Orgánica 9/1983 de 15 de julio, cuando se trata de una solicitud relacionada con el derecho de reunión y manifestación recogido en el artículo 21 de la Constitución, el ayuntamiento deberá de emitir un informe razonado. Si fuera necesario, el informe indicará a las personas organizadoras las razones por las que se considera que el espacio público elegido para la celebración no es el adecuado. El Órgano de Gobierno competente tomara la correspondiente resolución en función de ese informe.

### TÍTULO II

#### NORMAS Y PAUTAS DE COMPORTAMIENTO EN ESPACIOS PÚBLICOS

##### CAPÍTULO I

##### LAS PERSONAS

## Artículo 9

1. Quedan prohibidos los comportamientos que menosprecien la dignidad de las personas, así como las actitudes lujuriosas y exhibicionistas, cualquier comportamiento marginador, sea por motivos de sexo, xenofobia, raza, homofobia ó de cualquier otro tipo, contra cualquier rasgo ó característica personal ó social, sean estos por hecho, por escrito, orales, por desprecio, por molestar deliberadamente, ejerciendo violencia física o psicológica, por agresión o cualquier otro modo de comportamiento insultante u ofensivo o de acoso.

2. Quedan prohibidos todos los comportamientos citados anteriormente especialmente cuando se dirigen a personas de edad avanzada, a menores y a personas con alguna discapacidad.

El incumplimiento de lo dispuesto en este artículo se califica como infracción muy grave.

## Artículo 10.—Necesidades fisiológicas

1. Queda prohibido realizar necesidades fisiológicas (orinar, defecar, etc.) en todos los espacios definidos en esta ordenanza y en todo caso en los de esa naturaleza contenidos en el ámbito objetivo de aplicación. Para cubrir esas necesidades deberán de utilizarse las instalaciones y elementos colocados al efecto.

2. Cuando se realizarán este tipo de actos lugares con presencia de mucha gente, ó en presencia de menores, ó en lugares, monumentos ó edificios catalogados y protegidos, el incumplimiento será calificado como grave.

**11. artikulua**

Edari-ontzi guztiak jagokezan kontainerretara bota behar dira, edo, kasuak halan eskatuta, espazio publikoan kokatuta dagozan paperontzietara. Galazota geratzen da lurrera botetea edo bide publikoan iztea latak, botilak, edontziak zein beste edozein gauza. Atal honetan ezarritako jarrera arau-hauste arintzat hartuko da, egitateak arau-hauste larriagoa suposetan ez dauen bitartean.

**12. artikulua. — Adin txikikoen alkoholun edarien konsumoa**

1. Euskal Autonomia Erkidegoko drogodependentzia arloko aurre-hartze, laguntza eta gizarteratzerako bagilaren 25eko 18/1998 Legeak ezarritakoaren kalte barik, eta lege honegaz bat etorrita, galazota geratzen da, 18 urtetik beherako pertsonen alkoholun edariak saldu edo emotea.

Debeku hori ez batetea lege-hauste larri edo oso larritzat hartuko da, osasunarentzat eragiten dauen kaltearen arabera.

2. Aurreko artikuluetan jasotako kasuetan, aginteko agenteek kautelazko neurri modura erretiratu egingo dabez eta konfiskatu edariak, ontziak, eta debekupean dagozan beste elementu guztiak, materialak eta erabilitako tresnak. Konfiskatu diran alkoholun edari eta janariak desegin egin daitezke berehala, osasun eta higiene arrazoiak bide dirala.

3. Legea hausi dabenean adin txikikoak badira, beharrezko izapideak burutuko dira euren guraso, tutore edo zaintzaileei emoteko gertatutakoaren barri eta egiaztatu Ordenantza honetan aurreikusitako egoeren intzidentziarik emon danentz.

## II. KAPITULUA

**HERRITARREN BIZIKIDETZEA AZTORATZEN DABEZAN PORTAERAK****13. artikulua**

1. Herritar guztiak bete beharko dabez larrialdi egoeratan, klimatologiak eragindako edo beste honelakoetan, bide publikoan agintek eta bere agenteek ezarritako neurri murriztaileak, pertsonen eta ondasunen segurtasuna babesteko izango dira neurriok eta.

2. Segurtasuna gordeteko hondartzetan eta batez be itsasoko jardueretan, emoten diran aginduak zehatz mehatz bete beharko dira eta bainu-lekuetako baldintzei buruzko seinaleak errespetatuko dira. Holan egin ezean, huts-egite larritzat hartuko da.

3. Hondamendi kasuetan, Bide publikoan Herritarren Segurtasuna eta Ordena Publikoa mantentzeko agintzen diran neurri murriztaileak herritar guztiak bete beharko dabez.

4. Larrialdiko herritarren erreskate eta segurtasun zerbitzuen parte hartzea eraginik istripuen edo ezbeharren itxurak eta plantak egin ezker, huts-egite larri modura ulertuko da.

5. Okerreko edo egia ez dan informazioa emonaz egiten diran deiek Larrialdiko herritarren erreskate edo segurtasun zerbitzuak lanean ipini izatea eragiten badabe, huts-egite larritzat hartuko dira.

**14. artikulua**

Bide publikoan eta jentea dabilen lekuetan, eraikinetan eta zerbitzu publikoko ibilgailuetan, herritarrek gorde behar daben portarea herritarren arteko bizikidetza onaren barruan mantendu behar da.

Galazota egongo da bereziki:

1. Herritarren atsedena eta lasaitasuna haustea telebistek, irratiek, altzari mobimentuek, jokoek, abestiek, aldarriek, liskarrek, animaliek (batez be bakarrik itzita dagozalako eta inork ez dauzalako zaintzen), eta abarrek sortutako zaratakaz.

2. Ibilgailuen martxak indartzea zarata nekagarriak sorturik beharrezkoak ez diran abiadak hartzean.

3. Uri barruan turutak edo beste edozein seinale akustiko jotzen ibiltea, ez bada baten bat zapaltzeko edo autoek talka egiteko arrisku larriaz ohartu nahi dala, edo larrialdietako zerbitzu publiko zein pribatuak dirala.

**Artículo 11**

Los vasos deberán de depositarse en los containeres correspondientes, ó en su caso si así se indicara en las papeleras situadas en los espacios públicos. Queda prohibido depositar en vía pública ó arrojar al suelo latas, botellas, vasos ó cualquier otra cosa. La infracción definida en esta sección será calificada como LEVE, siempre y cuando el hecho no suponga, por si mismo, otro tipo de infracción.

**Artículo 12. — Consumo de alcohol por menores de edad**

1. Sin perjuicio de lo dispuesto ley 18/1998, de 25 de junio, sobre prevención, asistencia e inserción en materia de drogodependencias, y en concordancia con la misma ley, queda prohibido servir ó vender bebidas alcohólicas a las personas menores de 18 años.

El incumplimiento de esta prohibición será calificado como grave ó muy grave, dependiendo del daño que pueda provocarse a la salud.

2. En los casos descritos en los artículos anteriores los ó las agentes de la autoridad retiraran y confiscaran, como medida cautelar, las bebidas, los vasos y todos aquellos elementos y materiales que se hayan sido de utilidad en el incumplimiento de la prohibición. Por razones de seguridad y salud, las bebidas y alimentos decomisados se destruirán inmediatamente.

3. En el caso de que la infracción sea realizada por una persona menor de edad, se realizarán los tramites necesarios para poner en conocimiento de sus padres-madres, tutores o responsables legales, tanto lo sucedido, como que ha resultado una incidencia de lo previsto en esta ordenanza.

## CAPÍTULO II

**COMPORTAMIENTOS MOLESTOS PARA LA CONVIVENCIA ENTRE LAS PERSONAS****Artículo 13**

1. En circunstancias de emergencia, climatológicas ó de otro tipo, todas las personas deberán de cumplir las medidas restrictivas, que con intención de garantizar la seguridad de personas y bienes, disponga la autoridad y sus agentes.

2. Deberán de cumplirse con detalle las ordenes dadas con intención de garantizar la seguridad en el ámbito del las playas y especialmente las relacionadas con las actividades náuticas, y se respetaran las señales sobre las condiciones de los lugares de baño. En caso de incumplimiento se considerará como una infracción grave.

3. En los casos de catástrofe todas las personas deberán de cumplir las medidas restrictivas, que con intención de garantizar la Seguridad y Orden Público en la vía pública, disponga la autoridad y sus agentes.

4. Provocar una intervención de los servicios de rescate y/o seguridad por haber simulado un accidente ó desgracia, será considerado como una infracción grave.

5. Provocar una intervención de los servicios de rescate y/o seguridad por avisar ó haber comunicado una información falsa ó fraudulenta será considerado como una infracción grave.

**Artículo 14**

En la Vía pública, en los lugares de concurrencia de gente, en edificios, en vehículos de servicios públicos, todas las personas deben de mantener un comportamiento cívico dentro del marco de una buena convivencia.

Queda especialmente prohibido:

1. Todo tipo de ruidos que pueda romper el descanso y la tranquilidad de las personas: televisión, radio, movimiento de muebles, juegos, canciones, reivindicaciones, peleas, animales (en especial cuando se les deja solos y no hay quien les cuide).

2. Provocar ruidos molestos con acelerones innecesarios, ó tomando velocidades inadecuadas.

3. Excepto en los casos en los que se pretende evitar un posible atropello ó accidente, y cuando se trate de un servicio publico ó privado de emergencias, queda prohibido tocar el claxon u otro tipo de señales acústicas, en el Casco Urbano.

4. Egokiak ez diran erabilera edo okupazioakaitik etxebizitzetan sortutako hasarrakuntzen ondoriozko zaratak. Gorabehera horreek gerta leikez etxean jente lar bizi dalako, txarto zainduta dagoalako etxea, gune komunak okupata dagozalako edo debekupeko jarduerak garatzen diralako.

### III. KAPITULUA JARDUERENA

#### 15. artikulua. — *Saltzaile ibiltariak*

Merkataritza dendetatik kanpo, ohiz edo noizbehinka, saltzaileek egiten daberen merkataritza jarduerak da kale-merkataritzea. Postuetan, instalazio desmontagarrietan edo horrelakoak barik, kalean edo herriko espazio libre eta zabaletan egiten da jarduera hau.

Azoka, azokatxoetan, egunero eta noizbehinka egingo dira salmenta ibiltari honeek. denboraldiko postu finkoetan, udalaren baimena lortu eta gero; hori barik ezin izango da ezelako salmentarik egin.

Jagokan Udal Ordenantzearen kalte barik, guztiz galazota geratzen da kalean jentearengana joanaz egiten dan salmentea, manta ganean produktuak ipinitakoa edo ibilgailuetan edo kamioi-dendetan egiten dana, dana dala salgaia. Beti be, horretarako berarriazko baimena izan ezean.

Agintearen agenteak erretirau egingo dabez kautelazko neurri modura arau-hauste hau burutzeko erabili diran produktuak. Gauza horreei legez jagoken erabilera emongo jake. Janariak edo ondasun hondagarriak badira, desegin egingo dira eta jagoken erabilera egokia emon.

#### 16. artikulua

Galazota dago baimenik ez daukien saltzaile ibiltariei laguntzea emotea, adibidez, produktuak emonda, agintearen agenteen presentzia ohartuta, etab. Espazio publikoan baimenduta ez dagoan salmenta ibiltariko produkturik erostea be galazota geratzen da.

#### 17. artikulua

Bide publikoan udalarenak zein udalarenak ez diran obrak egitean, urigintzako lizentzia bidez onartutako obretako elementu laguntzaileak ipintean, edo horrelakoetan, Bermeoko Udalak lizentzia emotean agindutako baldintzak osotasunean bete behar dira. Baldintza horreek udalaren lizentzian eta baldintza teknikoan orrietan agertzen dira. Horrez gain, beste baldintza honeek be bete beharko dira, ezarrita egon leikezan berarriazko beste arauen kalte barik:

a) Erabilera publikoko espazio libreetarako sarbidea mugatzen daberen troka, zanga, aldamiu, zulo, karga-jasogailu eta holako elementuak seinalatu egin behar dira eta babestu, herritarren segurtasun fisikoa bermatzeko eta oinezkoak ahalik eta errazen eta erosen ibili daitezkan.

b) Hesi egonkor eta kendu bakoakaz babestuko dira obra honeek, harri barik, labain egiten dabezan ezta irauli daitekezkan egiturak barik. Hesi barruan sartuko da zangen eta laginen perimetro guztia, erabilten dabezan materialak, makineria eta guztia. 50 cm egongo dira alderik urtenena eta hesiaren artean. Hesiaren ordez txikotak, sareak, zintak edo horrelako elementurik ezin izango da ipini.

c) Babesteko elementuak argi gorriakaz iragarri beharko dira. Iluntzen hasten danagaz batera biztu beharko dira argiok, egun argi egin arte.

d) Obrak oinezkoen ibilbidea hartzen dabenean, 1,50 m.ko gitxieneko pasabide bat ipinita bermatuko da oinezkoak pasau ahal izatea. Espaloiek neurri hori baino gitxiago daukienean, zabalera honetako pasabide bat bermatu beharko da. Metalezko edo horrelako plantzak ipintean badira oinezkoak ibili ahal izateko, plantxa honeen inguruak ezin izango dau zentimetro bi baino gehiago urten espaloien kotatik.

4. Los ruidos provocados por riñas vecinales originadas por un mal uso ó ocupación indebida. Esas alteraciones pueden estar provocadas, porque en una vivienda puede vivir mucha gente, por un mal cuidado de la vivienda, porque se ocupan lugares comunes, o porque se desarrollan actividades prohibidas.

### CAPÍTULO III ACTIVIDADES

#### Artículo 15. — *Venta ambulante*

Se define como venta ambulante la actividad de comercio de venta que, habitualmente ó puntualmente, se realiza al margen de las tiendas. Este tipo de actividad no solo se desarrolla en puestos ó instalaciones desmontables sino que también se realiza en la calle, vía y espacio público al aire libre.

Esta venta ambulante se realiza a diario ó puntualmente en ferias y mercadillo en puntos fijos y por temporada tras haber obtenido permiso municipal. Sin ese permiso no se puede realizar ningún tipo de venta.

Sin perjuicio de lo dispuesto en la correspondiente ordenanza municipal, queda terminantemente prohibida la venta en la calle, asaltando directamente a la gente ó en productos depositados en una manta, ó en vehículos ó camiones tienda, ó cualquier otro modo de venta, siempre que no se disponga de la oportuna licencia.

Los y las agentes de la autoridad retirarán de manera cautelara todos los productos que se hayan utilizado en la infracción. A todos ellos se les dará el uso previsto por la ley. Si se tratara de alimentos y bebidas percederas se destruirán y se les dará el uso debido.

#### Artículo 16

Se prohíbe prestar ayuda a quienes realicen venta ambulante sin permiso, por ejemplo proveer de productos, avisar de la presencia de la autoridad, etc. Asimismo queda prohibida la compra de productos de venta ambulante sin autorizar.

#### Artículo 17

En los casos de los trabajos municipales ó obras no municipales que se desarrollan en la vía pública, en el momento de colocar las instalaciones y elementos permitidos con el otorgamiento de la licencia, se deben de cumplir la totalidad de los requisitos planteados en la licencia otorgada por el Ayuntamiento de Bermeo. Todas esas condiciones se señalan en la propia licencia y en las hojas referentes a las condiciones técnicas. Además de todas ellas, se deberán de cumplir las condiciones que a continuación se citan, sin perjuicio de lo que pueda disponerse en las correspondientes normativas de cada caso:

a) Las zanjas, hondonadas, andamios, foso, elevadores de carga y elementos parecidos que obstaculizan la vía pública deben de señalarse y protegerse para garantizar la seguridad física de las personas, y hacer el paso de los y las peatones lo más fácil y cómodo posible.

b) Todos esos trabajos se protegerán con vallas fijas e inamovibles, sin piedra, ni estructuras que puedan resultar resbaladizas ó puedan volcar. Todo el perímetro de las zanjas y muestras, así como los materiales utilizados y la maquinaria deberá de permanecer en el interior del vallado a una distancia mínima de 50 cm en el lugar más próximo. En sustitución del vallado no se podrán utilizar otros materiales como cuerdas, redes, cintas, ó semejantes.

c) Los elementos protegidos deberán de señalarse con una luz roja. Las luces deberán de encenderse inmediatamente al oscurecer el día y permanecer encendidas hasta el amanecer.

d) Cuando las obras se realizan en zona peatonal, se garantizará un pasaje mínimo de 1,5 metros para el paseo de viandantes. Cuando las aceras tengan una anchura inferior a esa medida, se garantizará un paso de la anchura citada. En el caso de que para el paso de viandantes se coloquen planchas de metal ó semejantes, las planchas no podrán sobresalir más de dos centímetros de la cota de la acera.

e) Metro 2,20ko altuera baino txikiagoa daukien txarrantzakaz jarritako aldamuak, behar dan moduan seinatu eta babestu beharko dira zoruraino, ibilbidetik luzetara, ondo ikusten ez daben pertsonen handik ibiltea errazteko.

